

# Kexaa: erlijiosoak eta noblezia

*La imagen del complejo monástico de Kexaa (esp. Quejana), en el Valle de Ayala, visualiza bien parte de las colaboraciones sociales que fueron necesarias para la creación y mantenimiento de la red de conventos y monasterios del País Vasco. Gracias a sus benefactores, las monjas dominicas han vivido en Quejana más de seiscientos años de historia, hasta 2008 en que se han retirado de este monasterio alavés, lleno de recuerdos nobiliarios.*

Kexaako eraikin historikoa da Arabak Erdi Arotik gorde duen ondare ikusgarrienetako bat, Gasteizko hiriburutik urrun, mendi arteko bailara hertsia batean gordeta, Aiarako haranean. Ez da hau nolanhiko eraikin-multzoa, denetarik baitu bere barnean: monasterio edo komentua, noski, baina baita dorre-jauregia ere, eliza bikaina, klaustroa, barne espazio irekiak, etab.

Eraikidura hau guztia zinezko salbuespena da, Euskal Herrian behintzat, bere arkitekturen aldetik ez ezik, bizi izan duen historiatic ere.

## **Noblezia baten oparia (1378)**

Kexaako moja domingotarren monasterioa sortzean, lehen ekimena Ordena erlijiosoak ez baidarik tokiko Ayala-tarren leinuak izan zuen. Ayalarrak orduan eta gero itzal handiko familiar tea ziren Araban. Legendek eta agiriek XI-XII. mendeetan jartzen dizkigute leinu honen lehen aztarnak, eta beti ere Aiara Haran eta Kexaan lekututa.

Fernan Pz. Ayala jaunaren eta emaztearen erabakiz eratu zen Kexaan domingotarren moja-ahizparte, 1378ko abenduaren 2an. Orduetik gaur arte (2008) hor bizi izan ziren mojak, XIX.

mendeko ihesaldiren bat edo beste tarteko. Familia honek beti ikusi du bere jatorburua Kexaan, eta saiatu ere egin da bertako ondasunak zaindu eta indartzen.

Horretaz arduratutako bat Fernan-en semea izan zen, Pedro Lz. Ayalako, "Canciller Ayala" bezala ezagutzen dena (1332-1407). Pedro hau Gaztelako Erregeen goi-politikaria izan zen, eta inoiz zorte txarreko arma-gizona (Naxera eta Aljubarrotako deskalabruetan preso hartu baitzuten), baina luma-gizon aitortu eta estimatua izan da, bere Rimado de Palacio olerki-idazkiagatik eta batez ere Erregeen kronikak idatzi zituelako. Pedro Lz. Ayalakoak, jaiotzez gasteiztarra izan arren, Kexaan utzi nahi izan zituen bere eta emaztearen gorpuak, eta orain ere bertan ikus daiteke haien hilobi ederra.

## **Moja domingotarrak**

Kexaako moja-komentuaren jaiotza Fernan Pz. Ayalakoari zor zaio, esan dut. Mojen egoitza eta eliza eraiki ahal izateko, testamentuan hainbat ondasun utzi zizkion bildutako Ahizparte domingotarrari. Bere jabetzan zituen ondasun sakanatu eta urteroko irabaziak, errota, soro, larre, azienda eta abarretatik bizi ahal izango ziren





mojak. Eliz ospakizunetarako jantzi eta edergarri ugari ere utzi zituen. Horren ordez, Fernan ongi-leak eskatzen zuen guztia familiako hildakoen alde otoitz egitea zen, eta banan-banan izendatu zituen berezikiago gogoan izatekoak. Horren ondoren, Fernan bera domingotar egin zen Gasteizko komentuan, eta bertan bizi hil arte (1385).

Fundatzailearen ondoko ongile handia Fernan-en aipatutako seme Pedro Gantzilerra izan zen. Segidako lau Erregeren zerbitzari izatera iritsi zen, Gaztelako Erreinuan, armetan bezala diplomazian. Frantzian eta batez ere Portugalen jasandako preso-aldiek bizitzaz, gizarteaz eta botereaz berariazko ikusmoldea eman zioten gizonari. Horiek gorabehera, unerik txarrenetan ere gogoan izan zuen Kexaa, eta bertako Andre Maria.

Lehenago aitak bezala, Pedrok ere hahemen bereak zituen ondasunen errentak utzi zizkien mojei, Orozkon, Arrigorriagan, Urduñan. Eta Kexaan Andre Mariaren kapera berria eraiki zuen: "Esta capilla mandaron facer Don Pero Lopes Señor de Ayala e de Salvatierra et Chanciller Mayor del Rey et donna Leonor de Gusman, su muger", dio harlanduan ageri den idazkiak.

Gerora, komentu-elizetako eraikinak osatuz joan ziren ondoko mendeetan, eta bereziki azpimarratzekoak dira XVIII.eko berrikuntza eta osaketak. XIX.eko gerrate eta politikako aldar-te gaiztoak gainditu ondoren (adibidez, frantsesek behin eta berriz arpilatu zuten Kexaa), XX. mendeko zahar-berritzei esker, Kexaa ira-

ganaren lekuko bikaina da, inork esperoko ez lukeen bailara ezkutu horretan gordeta.

Kexaako historia honek mahai gainera dakarkigu, beste lurraldetan bezala, Euskal Herriko Erregimen Zaharreko komentu eta monasterioen historiarekiko galdera orokor bat (XIII-XVIII. mend.), kasu honek indar handiz iradokitzen diguna:

Nork lagunduta jaso ziren honelako monasterio eta komentuak? Izan ohi dituzten halako eraikin handietarako nork jarri zuen dirua? Erlijiosoek berek ez ezik beste zein jende lagundu zuen hori dena egiten?

Erantzun zuzenik izateko, erlijioso Etxeen historia ezberdinak banaka begiratu beharko lirateke, eta kasu guztiak edo adierazgarrienak alderatuta atera historia orokorrerako ondorioak. Kexaako honetan, bistan dago familia handiki baten kontura abiarazi zela sortze-ekimena eta berorrek eutsi ziola gero ere bertako monasterioari. Horren antzera, Euskal Herriko dirudunek, neurri berean ez izan arren, sarritan jarri zituzten baliabide ekonomikoak eliz asmo hauetarako.

Eta, horrelakoen ondoan, euskal Erakundeak ere egon ziren, Errege eta agintari gorenetatik hasi, eta tokian tokiko herri-agintariengaino. Hainbat aldiz herritarrek ere agertu zuten beren gogoak (aldeko nahiz kontrakoa), komentu berriak sortzerakoan. Monasterio eta komentuen sarea, beraz, borondate ezberdin eta anitzen emaitza izan zen.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharra:* 610273580